

Landareak

JAKOBA ERREKONDO



JAKOBA ERREKONDO

Kozkortzen

Pinuetan pinu-kozkorak kozkortzen ari dira, iazko adarren muturretan, aurtengo pujen oin berean. Argazkikoa kozkor hori eman duen lorea da, gutxi gehiago, duela hilabete pare batekoa. Lore multzo honek askatzen duen polena da udaberriaren hasiera hartan dena –putzuak, bide-ertzak, autoak...– horiz jantzi zuen hauts hura. Hauts hark lore emeak ernaldutaz bazituen, hauek kozkorak, kozkortzen ari diren pinu-kozkorak, pinaburuak emateko lana hartua du. Sasoi osorako. Emearen lanak.



2.549

Inoiz neurtu den zuhaitz handiena *Lindsey Creek* izeneko sekuoia izan da, *Sequoia sempervirens*. 1905ean ekaitz batek jo eta eraitsi zuen. 3.300 tonako pisua eta 2.549 m³ material, zura, zuen.

Esne-esnetan

EUROPAKO IPAR MUTURREAN muki-belarra, *Pinguicula vulgaris*, dute gatzagi. Esnea mami, jogurt, gaztanbera, gazta... bihurtzeko mirarigile. Gatzatu horiek makina bat negutako gosea arinduko zuten. Gaur gutizia ditugu, Europa aldean behintzat. Muki-belar karniboroak gatzatuari eransten dion kutsuak hango kulturen aho sabai txorrotxenak ere kitzikatuko ditu.

Kultura horietan ziabelar horia, *Galium verum*, baregarri edo lasaigarri gisa erabiltzen dute. Hegorago, ia kontinente osoan gatzagi lanak ere egiten ditu. Ziatzea mamitzea, gatzatzea izaki, ziabelar izenak ederki dio; gatzagi-esne eta legar-belar ere deitzen zaio. Gatzatu eta ahosabai eta begien gozagarri, loretan erakusten duen kolore laru eder berarekin jantzen du gazta ziabelar honek. Ingalaterran, Gloucestershiren, *Double Gloucester* deituriko gazta sonatua egiteko darabilte. Landare

genero honen *Galium* izena, esnea esan nahi duen greko-ko *gala* hitzetik dator, eta *verum*-ek estandarra edo benetakoa dio. Gatzaz gain, ileak horituz horaitzeko ere ona da. Txaplata jarrita odol jarioak gelditzen ditu eta erredurak sendatu. Dioscoridesek, duela 2.000 urteko mediku greko ezagunak zionez, sustraiak larrutarako gogoa berotzen du. Eta ziabelar inaurkinarekin koltxoak betetzen zirenez...

Ziabelarrak esnea bezala, zaurietako odola gatzatu edo biltzeko duen gaitasuna ikertu izan da. Hartzigarri berezi bat badu, baina garraztasuna ematen dioten azidoak, zitrikoa tartean, omen dira kakoa. Garraztak eta mikatzak diren landare guztiak bezala jateko gogoa pizten du.

Berotu, piztu, zaurietako odolak bildu... Hau da hau landare honekin dugun mahuka! Eta halaxe azaltzen zaigu, baratzetan, soroetan... Ukituz gero kateatu egiten da, heldu egiten du, itsatsi egiten zaigu, arantzarik gabe gozo, hartu eta eramateko esanez. Ez alferrik Espainian *amor de bordelano* eta Frantzian *herbe collante* eta *prend main* esaten diote.

*Galium verum.*

Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.